Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko uztailaren 17a, asteazkena — 138 — Miércoles, a 17 de julio de 2024

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ORIOKO UDALA

*Euskara ikasteko dirulaguntzen deialdia 2024.*

Alkateak, 2024ko ekainaren 14ko 522/24 zenbakidun dekretuz, dirulaguntzen oinarriak onartu ditu 2023-24 ikasturtean helduentzako euskalduntze- eta alfabetatze-ikastaroak Oriotik kanpo egiten dituzten oriotarrentzat.

Ondorioz, oinarrien testu osoa argitaratuko da, eta 2024ko urriaren 11ra bitarteko epea emango da interesatuek dirulaguntzak jasotzeko eskaerak aurkezteko, dagokien dokumentazio guztiarekin.

*Inprimakien inguruko oharra:* Inprimakiak interesatuen eskura egongo dira udaleko web orrian, dirulaguntzen atalean: https://orio.eus/dirulaguntzak/.

Hauek dira dirulaguntzen oinarriak:

*Euskara ikasteko dirulaguntzen deialdia 2024.*

1. *Xedea.*

Deialdi honen xedea da dirulaguntza hauek emateko baldintzak arautzea: 2023-2024 ikasturtean helduentzako euskalduntze- eta alfabetatze-ikastaroak Oriotik kanpo egiten dituzten oriotarrentzako dirulaguntzak.

2. *Onuradunak.*

2023-2024 ikasturtean helduentzako euskalduntze- eta alfabetatze-ikastaroak Oriotik kanpoko euskaltegi homologatuetan egiten dituzten oriotarrak izango dira dirulaguntza hauen onuradun, betiere deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Ikasle horiek dirulaguntza jasoko dute, bakar-bakarrik, egin duten ikastaro hori Orion eskaintzen ez bada. Orioko euskaltegian ikastaro horren eskaintza egiten bada, ez dute dirulaguntza jasotzeko eskubiderik izango.

Orioko euskaltegian ikasten duten herriko ikasleek, bestalde, ez dute deialdi honen bidez dirulaguntzarik jasoko, herriko ikastaroen prezioa dagoeneko Udalak subentzionatuta dago-eta.

3. *Eskabideak aurkezteko tokia eta epea.*

Eskabideak Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu daitezke edo telematikoki, www.orio.eus egoitza elektronikoaren erregistroaren bidez.

Eskaerak aurkezteko epea deialdi honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunean irekiko da eta urriaren 11n bukatuko da.

Eskabidea aurkezteak deialdi honetan jasotako baldintza guztiak berariaz eta oso-osorik onartzen direla esan nahi du.

## AYUNTAMIENTO DE ORIO

*Convocatoria de subvenciones para el aprendizaje del euskara 2024.*

La alcaldesa, mediante Decreto n.º 522/24, de 14 de junio de 2024, ha aprobado las bases de las subvenciones para los alumnos que durante el curso 2023-24 realicen cursos de euskaldunización y alfabetización de adultos fuera de Orio.

En consecuencia, se publica el texto íntegro de las bases y los interesados dispondrán de un plazo que acabará el 11 de octubre de 2024 para poder presentar sus solicitudes de subvención junto con la documentación pertinente.

*Nota sobre los impresos:* Los impresos estarán a disposición de los interesados en la página web del Ayuntamiento, en el apartado de subvenciones: https://orio.eus/dirulaguntzak/.

Las bases de las subvenciones son las siguientes:

*Convocatoria de subvenciones para el aprendizaje del euskera 2024.*

1. *Objeto.*

Es objeto de la presente convocatoria la regulación de las condiciones de concesión de las siguientes subvenciones: Subvenciones a oriotarras que realicen cursos de euskaldunización y alfabetización para adultos fuera de Orio durante el curso 2023-2024.

2. *Beneficiarios.*

Podrán ser beneficiarias de estas subvenciones las personas que durante el curso 2023-2024 realicen cursos de euskaldunización y alfabetización de adultos en euskaltegis homologados fuera de Orio, siempre que cumplan los requisitos establecidos en la presente convocatoria.

Estos alumnos únicamente recibirán subvención si el curso que han realizado no se imparte en Orio. En el caso de que en el euskaltegi de Orio se oferte dicho curso, no tendrán derecho a subvención.

Los alumnos de Orio que cursen estudios en el euskaltegi de la localidad no recibirán subvención a través de esta convocatoria, ya que el precio de los cursos en el euskaltegi de Orio ya está subvencionado por el Ayuntamiento.

3. *Lugar y plazo de presentación de solicitudes.*

Las solicitudes podrán presentarse en el Registro General del Ayuntamiento o telemáticamente a través del registro electrónico en la web www.orio.eus.

El plazo de presentación de solicitudes se iniciará el día hábil siguiente al de la publicación de este anuncio de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y finalizará el 11 de octubre.

La presentación de la solicitud supone la aceptación expresa e íntegra de todos los requisitos contenidos en la presente convocatoria.

EK\CV GAO-I-2024-05156

*4. Aurkeztu beharreko agiriak.*

Eskabideak deialdi honetako eranskineko eredu normalizatuaren bidez egingo dira eta, horrekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

— Nortasun-agiriaren kopia.

— Ikastaroa ordaindu izanaren egiaztagiria.

— Euskaltegiak egindako ziurtagiria. Ziurtagiriak jaso beharko du: ikaslea zein mailatan ikasi duen, zenbat ordutako ikastaroa izan den, zein prezio izan duen, ikaslearen asistentzia zenbatekoa izan den...

— Egoera bereziak egiaztatzeko agiriak: langabezia-txartela edo gizarte-zerbitzuen txostena.

— HABEren dirulaguntzen 2023ko deialdian eskaera aurkeztu izanaren agiria (maila egiaztatu edo dagokion atalasea gainditu duten ikasleek bakarrik).

*5. Aurrekontuko diru-hornidura.*

Deialdi honetako dirulaguntzetarako 3.000,00 € daude 2024ko udal-aurrekontuko 0606.480.02.335.30 partidan.

*6. Diruz lagun daitezkeen gastuak.*

2023ko urritik 2024ko irailera bitartean (biak barne) euskaltegi homologatuetan egindako euskalduntze- eta alfabetatze-ikastaroak lagunduko dira diruz: aurrez aurrekoak, autoikaskuntzakoak nahiz barnetegikoak.

*7. Eskaerak balioztatu eta laguntzak emateko baldintzak.*

Orioko Udaleko Euskara Zerbitzuak egiaztatuko du eskatzaileek baldintza guztiak betetzen dituztela. Hau da:

— Egindako ikastaroan % 80ko asistentzia izan duela.

— Egindako ikastaroa ordaindu duela.

— Orion erroldatuta zegoela ikastaroak iraun duen bitartean.

— Beteta dauzkala bere zerga-betebeharrak.

*8. Ebazpena.*

Euskara Zerbitzua arduratuko da prozeduraren instrukzioaz eta txostena prestatuko du, Herritarrentzako Zerbitzuen batzordean aurkeztuko dena diktaminatzeko. Behin diktaminatu ondoren, alkate-dekretuz ebatziko dira dirulaguntzak.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita, hiru hilabete izango ditu Udalak dirulaguntzak ebazteko. Epe hori pasatu eta gero, Udalak eskabideren bati buruzko erabaki zehatzik hartu ez badu, erantzuna ezezkoa dela esan nahiko du horrek.

*9. Dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko irizpideak.*

Emango diren dirulaguntzak kalkulatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

Ohiko ikastaroak:

— Ikastaroak irauten duen bitartean lanik gabe egon diren ikasleei matrikularen % 100 ordainduko zaie. Gainontzekoei, % 75.

Ikastaro trinkoak eta barnetegiak:

— Barnetegian ikastaroren bat egin dutenei edo ikastaro trinkoa egin dutenei irizpide hauek aplikatuko zaizkie: langabetuek % 75 kobratuko dute, 600 euroko mugarekin; gainontzekoek % 50, 450 euroko mugarekin.

— Barnetegiko ikastaroei dagokienez, Udalak ez ditu diruz lagunduko ostatuari eta mantenuari dagozkion gastuak, baizik eta, bakar-bakarrik, eskola-orduei dagozkienak.

*4. Documentación a presentar.*

Las solicitudes se formalizarán en el modelo normalizado que figura como anexo a la presente convocatoria y deberán ir acompañadas de la siguiente documentación:

— Copia del documento de identidad.

— Justificante de abono del curso.

— Certificado expedido por el euskaltegi. El certificado deberá recoger el nivel del curso efectuado por el alumno, el número de horas impartidas, el precio del curso, el porcentaje de asistencia, etc.

— Documentación acreditativa de situaciones especiales: tarjeta de desempleo o informe de servicios sociales.

— Resguardo de haber presentado la solicitud en la convocatoria de subvenciones de HABE para el año 2023 (sólo para los alumnos que hayan acreditado el nivel o superado el umbral correspondiente).

*5. Dotación presupuestaria.*

La dotación presupuestaria de esta convocatoria de subvenciones asciende a 3.000,00 €, a cargo de la partida 0606.480.02.335.30 del presupuesto municipal de 2024.

*6. Gastos subvencionables.*

Se subvencionarán los cursos de euskaldunización y alfabetización realizados en euskaltegis homologados durante los meses de octubre de 2023 a septiembre de 2024, ambos inclusive; tanto los cursos presenciales, como los de autoaprendizaje o en régimen de internado.

*7. Condiciones de valoración de las solicitudes y concesión de las ayudas.*

El Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Orio comprobará que los solicitantes cumplen todos los requisitos. Es decir:

— Haber asistido al 80 % del curso realizado.

— Haber abonado el curso realizado.

— Haber estado empadronado en Orio durante el curso.

— Estar al corriente de las obligaciones tributarias.

*8. Resolución.*

El Servicio de Euskera se encargará de la instrucción del procedimiento y elaborará un informe que se elevará a la Comisión de Servicios al Ciudadano. Una vez dictaminadas las subvenciones, se resolverán por Decreto de Alcaldía.

El Ayuntamiento resolverá las subvenciones en el plazo de tres meses desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes. Transcurrido dicho plazo sin que el Ayuntamiento haya resuelto expresamente sobre alguna solicitud, se entenderá que la respuesta es negativa.

*9. Criterios para determinar la cuantía de la subvención.*

Para el cálculo de las subvenciones a conceder se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

Cursos ordinarios:

— A los alumnos que se encuentren en situación de desempleo durante el curso se les abonará el 100 % de la matrícula. Al resto, el 75 %.

Cursos intensivos y en régimen de internado:

— A quienes hayan realizado algún curso en régimen de internado o un curso intensivo se les aplicarán los siguientes criterios: las personas desempleadas cobrarán el 75 %, con un límite de 600 euros; el resto, cobrará el 50 %, con un límite de 450 euros.

— En cuanto a los cursos en régimen de internado, el Ayuntamiento no subvencionará los gastos de alojamiento y manutención, sino únicamente los correspondientes a las horas lectivas.

EK\CV GAO-I-2024-05156

— Ikastaro trinko izaera izango dute egunean 3 ordutik gorako ikastaroek (3 ordukoek barne).

— Autoikaskuntza-sistema garatuak erabiltzen dituzten ikastaroei ere (Bai&By eta horrelakoak) ikastaro trinkoen irizpide berak aplikatuko zaizkie.

Udalak aurrekontuan onartuta daukan diru-partidaren arabera ordainduko dira dirulaguntzak; beraz, partidan diru nahikorik ez badago laguntzak osorik ordaintzeko, proportzionalki banatuko da dirua eskatzaile guztien artean.

Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du dagokion organoak, dirulaguntzen ebazpena egin aurretik. Dena dela, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

*10. Bateragarritasuna.*

Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira xede berarekin jaso daitekeen beste edozein dirulaguntzarekin, baldin eta gainfinantzaketarik ez badago.

Orioko Udalak eskubidea izango du eskatzaile bakoitzak emandako edozein datu beste administrazio publikoekin erkatzeko, betiere deialdi honen xede den gaiari atxikita. Era berean, emandako dirulaguntzen, onuradunen eta zenbatekoen zerrenda HABEra (Helduen Euskalduntze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) bidaliko da, dagokion datu-basean jasotzeko.

Ikasturtean zehar HABEren mailaren bat edo baliokideren bat egiaztatzen duten ikasleek, baldin eta HABEren dirulaguntza jasotzeko eskubidea badute, HABEren deialdian parte hartu beharko dute eta hori agiri bidez adieraziko diote Orioko Udalari. Orioko Udalaren dirulaguntza HABEk emandakoaren osagarria izango da.

*11. Dirulaguntzak ordaintzea.*

Banku-transferentzia bidez egingo da dirulaguntzen ordainketa, onuradunaren titulartasuneko kontu batean.

*12. Araubidea eta errekurtsoak.*

Deialdi honetan aurreikusi gabeko alderdi guztietan aplikatzekoak izango dira azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzei buruzko lege orokorra (azaroaren 18an argitaratua *Estatuko Aldizkari Ofizialean*); lege horren garapeneko erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 errege dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25ean argitaratua *Estatuko Aldizkari Ofizialean*); eta Orioko Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Arautzailea.

Interesdunek deialdi honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete administrazioarekiko auzietako Donostiako epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko deialdi hau onartu duen organo eskudunaren aurrean, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Orio, 2024ko ekainaren 14a.—Anuska Esnal Oliden, alkatea.
(5156)

— Tendrán la consideración de cursos intensivos los cursos de duración superior a 3 horas diarias (incluidos los de 3 horas).

— A los cursos que utilicen sistemas de autoaprendizaje desarrollados, como Bai&By y similares, se les aplicarán los mismos criterios que a los cursos intensivos.

Las subvenciones se abonarán con arreglo a la partida presupuestaria aprobada por el Ayuntamiento, por lo que si en la misma no existiera consignación presupuestaria suficiente para proceder al abono de la totalidad de las ayudas, el importe se distribuirá proporcionalmente entre todos los solicitantes.

El gasto autorizado podrá ser incrementado o disminuido por el órgano competente con carácter previo a la resolución de las subvenciones. En todo caso, ello no implicará una nueva convocatoria.

*10. Compatibilidad.*

La concesión de estas subvenciones será compatible con la obtención de cualquier otro tipo de subvención o ayuda para el mismo objeto, siempre que no exista sobrefinanciación.

El Ayuntamiento de Orio se reserva el derecho de cotejar cualquier dato facilitado por los solicitantes con los de otras Administraciones Públicas, siempre dentro de la materia objeto de esta convocatoria. Asimismo, la relación de subvenciones, beneficiarios y cuantías concedidas se remitirá a HABE (Instituto de Euskaldunización y Reeuskaldunización de Adultos) para su inclusión en la base de datos correspondiente.

Los/as alumnos/as que durante el curso escolar acrediten algún nivel de HABE o equivalente y tengan derecho a subvención de HABE, deberán participar en la convocatoria de HABE, comunicándolo documentalmente al Ayuntamiento de Orio. La subvención del Ayuntamiento de Orio será complementaria a la concedida por HABE.

*11. Pago de las subvenciones.*

El pago de las subvenciones se realizará mediante transferencia bancaria en una cuenta de titularidad del beneficiario.

*12. Régimen jurídico y recursos.*

En todo lo no previsto en la presente convocatoria será de aplicación la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, publicada en el *Boletín Oficial del Estado* de 18 de noviembre; el reglamento que la desarrolla, aprobado por Real Decreto 887/2006 de 21 de julio, publicado en el *Boletín Oficial del Estado* de 25 de julio; y la Ordenanza Reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Orio.

Contra la presente convocatoria los interesados podrán interponer directamente recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, con carácter previo, los particulares podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el órgano competente que haya aprobado la presente convocatoria en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no cabrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación. Todo ello, sin perjuicio de que se pueda ejercitar cualquier otro recurso que se estime procedente.

Orio, a 14 de junio de 2024.—La alcaldesa, Anuska Esnal Oliden.
(5156)

EK\CV GAO-I-2024-05156